


GAIA:

Ekitate gabezia

HERRIA:

Zizurkil

2008/09 IKASTURTEA



## Aurkezpena

2008-2009 ikasturtean Zizurkilgo Pedro Mari Otaño, San Millan eta Jesusen Bihotzeko umeeek eta gazteek Ekitate Gabezia gaia landu dute Eskolako Agenda 21 programaren barnean, bizitzen ari garen krisi ekonomikoarekin zerikusi handia duen gaia. Helburu nagusia ikasleek ingurumena, kontsumoa, bizi kalitatea, pobrezia, giza eskubideak eta aztarna ekologikoa oso erlazionatuta daudela konturatzea da. Udal Batzorde honetara ekarri nahi izan dituzte lanaren emaitzak eta hausnarketaren ondorioz adostutako konpromisoak eta proposamenak. Eskolako Komunitate osoak hartzen du parte: ikasleak protagonista nagusiak izanik, baina baita ere gurasoak, irakasleak eta eskolako beste langileak. Denera 202 ikasle izan dira proiektu honetan parte hartu dutenak.

## Zer landu dugu ?

Eskolako Agenda 21en hiru ardatz lantzen dira: eskolako kudeaketaren hobekuntza, kurrikulumaren azterketa eta komunitatearen partaidetza. Azken atal honetan egin ditugun lanak hurrengoak izan dira:

■ Haur Hezkuntzakoek, power point baten bidez 3 haur desberdinen ohiturak aztertu dituzte herrialde desberdinetako muturretako egoeren berri izan dutelarik : oparotasuna, txirotasuna, etab.Umeen Eskubideen irakurketa egin dute.

■ Lehen Hezkuntzako 1go eta 2. Mailakoek , aisia eta denbora librean dirua hain ezinbestekoa ez dela jabetu arazteko, arratsalde bat ahalik eta diru gutxien gastatuz ondo pasatzeko saiakera egin dute.

■ Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. Mailakoek migrazioa animalietan, gizakietan eta gure gizartean oso ohiko jarduera dela ikasi dute, inkesta egin diete inguruan edota familian migratzaile gertatutako bati beraren bizipenei buruzko berri izateko.

Gure gizartea etorkinen hartzaile gertatu dela konturatu arazi eta egoera honek dakartzan ondorioak aztertu dituzte.Gure herrian etorkinei laguntzeko dauden elkarte, zerbitzu publikoak, etab. ezagutu dituzte.

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. Mailakoek bidezko merkataritza zer den ezagutu dute. Herritarrei inkesta bat egin diete, herrian bidezko merkataritzako produktuak saltzen dituzten denden inguruan, baita enpresa alternatibo eta solidarioen inguruan.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1go eta 2. Mailakoek Soldata txikiekin bizitzeko moduak, oinarrizko errentak eta %0,7 aztertu dituzte.

Udalari eta eragile sozialei galdetu diete: herriko proiektuak , zerbitzuak eta elkarteak ezagutzuz.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. Mailakoek Ingurumen Biografiak eta Aztarna Ekologikoa aztertu dituzte elkarrizketen bidez, Ingurumen Biografien web orria kontsultatuz, inkestak eginez eta galdetegiak erantzunez.



## Ondorioak

Herriaren Diagnostika egin ondoren, Udal Batzar honetara ekartzen ditugu lortutako emaitzak eta ondorio nagusiak.

● Beste hurrek jolasteko aukera gutxiago dituzte.

● Jolastu daiteke dirua gastatu gabe.

● Gizonak errazago du migratzea emakumeak baino.

● Lan bila joan ziren kanpora (migratzea).

● Etorrin gehienak triste etortzen dira bere familia bere herrian utzi dutelako.

● Kezkatuak egoten dira eta horregatik beldurra dute.

● Etxerik ez duen jendea bada go herrian.

● Eskaleak badaude.

● Bakarrik bizi diren jubilatutako asko dago.

● Lanik ez duten familiak daude.





- Bidezko merkataritzako dendarik ez dago.
- Gustura egin dugu lana eta kontzeptu berri batzuk ikasi ditugu.
- San Millangoak: kanpotar errealitate hori ez dagoenez, oso zaila suertatu zaigu gaia egoki eskolan txertatzea.
- Haurrak urruti dituzte kanpora lan bila joan behar izan ziren familiarrak.
- Kanpora joandakoek zioten esperientzia aberasgarria egin omen zitzaien, gainera oso ondo tratatu omen zituzten joandako tokitan.
- Egun etortzen diren kanpotarrak igeltseritzan, enpresetan, zein dendetan hasten dira lanean.
- Euskara maila baxua dute orokorrean, erdara ordea errazago menperatzen dute.
- Laguntza anitz jasotzen dute, bai janari eta arropa moduan.
- Errespetua izatea eta beraiek laguntzea da, egin beharrekoa kanpotik beharraren ondorioz etorritako jendeari.
- Herri batzuetan neskak ezin dira eskolara joan, lana egiten geratu behar dutelako.

## Proposamenak

Gure lanaren ondorioak kontutan izanik, hauek dira egoera hobetzeko egiten dizkizuegun proposamenak:

- Herriko txiroei laguntzeko lan txikiak eman.
- Euskarazko ikastaroak ematea euskara ikasteko dohain.
- Etxebizitza eta lana aurkitzen laguntzea .
- Azoka antolatu bidezko merkataritzako gaiak eta baserritarrenak saltzeko.(4 gometxa)
- Arropa edukiontziak Zizurkil goian jartzea.
- ONG, Cáritas, Emaus bezalako elkarteei diru laguntzak eman.
- Umeei bizi kalitatea hobetzea.





- Patinetean ibiltzeko "U" bat jarri.
- Ume guztiak eskolara joatea.
- Frontoi berria jarri eta kiroldegia.
- Haur eskaleen jarraipena egin oinarrizko eskubideak betetzeko.
- Ume guztiei janaria, arropa eta jostailuak eman.
- Diru-laguntzak eman.
- Ikastolako lurra konpondu eta porteriak jarri.
- Herritarren azterketa egin arazoak detektatu eta sahiesteko.
- Bidezko merkataritzako dendak jarri.
- Ikasleen merendolak bidezko merkataritzako produktuekin osatzea.
- Kanpotarrak hona lan bila etorri beharreen beren herrian enpresa eta lanpostuak sortzeko laguntza ematea.
- Ubare auzoan parke bat jarri.
- Parkeak egoera onean mantendu eta handitu.
- Parke inguruan komunak jarri.
- Etxebizitza jarri.
- Udan Ikastolako patioa irekita utzi.

## Konpromisoak

Zizurkilgo ikasleok, ondorengo konpromisoak hartzen ditugu:

- Etorrinak ondo tratatu eta gure ohiturak erakutsi.
- Daukaguna konpartitu.
- Segundo Montes komunitateari laguntzen jarraitu.
- Zerbait apurtzen denean Udaltzainari abisatu.
- Bidezko merkataritza dendatan erosi.
- Baserritarrei zuzenean erosi.
- Parkeak zaindu.



- Emaus erakundeari altzari zahar erabilgarriak zein arropak ematea, haiek gerora prezio merkeetan diru arazoak dituztenei saltzeko.
- Udalari laguntza txikiak eman, beste herrietan lanpostuak lortu ahal izateko.
- ONG, Cáritas, Emaus bezalako elkarteei lagundu.
- Etorkinekin komunikatu.
- Arropa eduki ontzietara bota edo elkarteei eman.
- Bide gorriak erabili.
- Mendira joan.
- Laguni deitu, asko gastatu gabe jolastu.
- Janaria eta arropa bildu, behartsuei emateko.



## Eskerrak

Herriko Agenda 21-ari egiten dizkiogun ekarpen hauek kontuan hartzea eskatzen dizuegu.

Zuen arreta ere eskertu nahi dizuegu eta espero dugu egiten dizkizuegun proposamenei idatziz erantzutea.

Denon artean Zizurkilentzat etorkizun justuagoa eta jasangarriagoa lortuko dugulakoan, jaso ezazue gur agurrik beroenak;

**Zizurkilgo haur eta gazteak.**

